

EDALONTZIAK GAINAZKA EGITEA ERAGIN DUEN TANTA!

Arribistak eta ustelak CCOOtik kanpora!

Bake sozialari eta desmobilizazioari ez!

IRABAZI DEZAGUN CCOO langileentzat!

1. Caja Madrideko eta Bankiako kontseilari eta direktiboek “txartel opakuekin” egindako 15,5 milioi euroko iruzurra kapitalismo espainiarraren ustelkeriaren adibide bat gehiago da. Bertan inplikaturik daude CCOOko sei kontseilari. Hauek, hamar urtetan 800.000 euroz jabetu dira eta honek gure erakundearen etorkizuna baldintzatzen du.

2. CCOOko Komisio Ejekutibo Konfederalak erresoluzio bat onartu du Bankian zeuden sindikatuko sei ordezkariak kautelarki zigortzeko, baina hala ere, ezin ditugu ahaztu CCOOko idazkari nagusia den Ignacio Fernandez Toxoren adierazpenak. Bere hitzetan, orain dela gutxi arte Ejekutiba Konfederalako kide izan den Rodolfo Benitotaz ez dago desengainatuta, “modu ilegalean eta bere interes propioen alde” ez omen duelako egin, eta dimititzeko bere erabakiak “ohoretu” egiten duelako.

3. Etxekaleratutako eta preferenteekin estafatutako milaka familiaren interesak defendatu beharrean, gure sindikatuko kontseilariak aurrezki kutxa publiko baten lapurretan hartu dute parte. Toxorentzat hau ez bada ez ilegala eta ezta interes propioen alde egitea ere, guk esaten dugu CCOOren siglen erabilera nazkagarria dela eta argi erakusten duela nolako amildegia dagoen gure sindikatuko agintari askoren eta langile klaseak egunez egun sufritzen duen errealitatearen artean.

4. Langileen eta CCOOko afiliatuen aurkako irain larria da Toxok eta Komisio Ejekutibo Konfederalak Caja Madrideko eta Bankiako egoera ezagutzen ez zutela esatea. Zoritzarrez, ohiko praktika bihurtu da eta horrela erlazionatzen dira bankuekin, gobernu zentralarekin eta autonomikoeekin eta CEOErekin. “Estatu gizon” bezala ekiteko duten obsesioak, derrigorrez, gizartearen kontrola duten botere handiekin (governura iristen diren alderdiak, bankariak eta enpresari handiak) helburu berdinak izatera eramaten ditu. Horren truke, Estatuaren diru laguntza eskuzabalak jasotzen dituzte eta hamarka administrazio kontseilutan hartzen dute parte.

5. CCOOko zuzendaritzaren ustelkeria kasuak beren politikaren ondorio zuzena dira: bake soziala eta kontsentsua, desmobilizazioa, eskubideak eta lorpen sozialak galtzea eragiten duten akordioen sinatzea. Akordioan oinarritutako politika hau inposatzeko beharrezkoa izan da zuzendaritza postuetara eskuineko elementuak eta eskrupulurik gabeko jendilajea eramatea, aurreko idazkari nagusia izan zen Jose Maria Fidalgoekin gertatu zen bezala, gaur PPn gustora aurkitzen dena Jose Maria Aznarren babespean. Beste adibide larria: Maria Jesus Paredes bankako federazioko idazkari nagusi ohiaren senarrak, Francisco Baquero Noriegak, Bankian CCOOko kontseilaria izan zenak, txartel opakuekin 266.400 euro gastatu ditu. Prozesu hau sindikalista zintzo asko baztertuta uztearen kontura egin da, sindikalista asko enpresen aurrean salduta uztearen kontura.

6. CCOOko tradizio borrokalariak defendatzen ditugun sindikalista eta afiliatuak ezin gara pasibo mantendu gure sindikatua hondamendira eraman dezakeen egoeraren aurrean. Ustelkerian harrapatu direnen dimisioak eta militantzia zigorrak ez dira inolaz ere nahikoa.

Agintari konfederal nagusiak egoera honen arduradun politiko nagusiak dira aldi berean. Horregatik, CCOOko Komisio Ejekutibo Konfederal osoaren dimisioa eskatzen dugu, eta baita modu batean edo bestean inplikaturik dauden kide guztiena ere.

7. CCOO salbatzeko eta defendatzeko beharrezkoa da eztabaida demokratikoa antolatzea sindikatu guztian, beharrezkoa da afiliatu guztien protagonismoa eta eztabaida hau ezhoiko kongresu batekin amaitzea oinarritik zuzenean aukeratuak izan diren delegatuekin.

8. Ustelkeria borrokatzeko modu bakarra klaseko sindikalgintza borrokalari eta demokratikoa praktikatzea da. Hemen sinatzen dugunok dei egiten diegu CCOOko afiliatu guztiei eta langile mugimendu osoari CCOO LANGILEENTZAT IRABAZTEKO borrokatzeko. Gehitu zaitez manifestu honetara, zabaldu ezazu, bidali erresoluzioak eta protesta eskutitzak Ejekutiba Konfederalera. Erantzun kolektibo eta antolatua emateko garaia da hamarkada askotan langile klasearen sakrifizioarekin eraikitako sindikatua suntsitzen ari direnen aurka. Benetako Langile Komisioak inoiz baino beharrezkoagoak dira.

Gora CCOO!

Arribistak eta ustelak gure sindikatutik kanpora!

IRABAZI DEZAGUN CCOO LANGILEENTZAT